

2019/2020 ikasturtea

LAN MODULARRA
EGILE TESTUA
LORATZEN?



Egileak:

Alegria Arzak, Mara
Ansa Méndez, Ainhoa
Aranburu Beain, Jone
Arretxe Oronoz, Maddi
Arrospide Eizagirre, Uhin

AURKIBIDEA

1.- ANIZTASUNA	2
2.- GURE NARRATIBA DIGITALA	2
3.- ZERK ERAMAN GAITU EGOERA HONETARA?	4
4.- HAURRAK ERE BIKTIMA DIRA	5
5.- HAURRAREN BEHARRAK	6
6.- GENERO INDARKERIAK HAURRENGAN DUEN ERAGINA	7
7.- ONDORIOAK	8
8.- TALDEAREN BALORAZIOA	9
9.- IRAKURGAI INTERESGARRIAK	9
10.- ITURRIAK	10

1. ANIZTASUNA

Aniztasunak subjektuen arteko desberdintasuna edo bereizketa adierazten du. Balio hau bazterketaren aurkakoa da erabat eta izaki orori pertsona errespetua zor zaiolaren uste sendoan oinarritzen da. (1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren hitzaurrea eta 2. art.)

Askotan, bazterketa- eta desberdintasun-egoera ugariren kausa diren aniztasunarekiko erantzun negatiboak aurkitzen ditugu. Hori ez horrela, aniztasuna baliotsua eta positiboa da gure iritziz, gizaki izateko aukeren ispilu izateaz gain, aberastu ere egiten gaituelako. Banako, familia eta gizarte-talde guztiak izaten dira anitzak, eta horrek ikasteko eta pertsona gisa hobetzeko aukera ematen digu. Beraz, aniztasun horrekiko errespetua sustatzen duen kalitatezko hezkuntza bermatzearen, hezkuntza eta eskola inklusiboak garatzea dugu helburu. Izan ere, ikastetxeetakoa ez da gizartean bertan nagusi den aniztasunaren islada baizik.

Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailak diotenaren harira, aniztasunak norbanakoaren bizitzako alderdi guztiak aintzat hartzen ditu. Guztioi burura datorzkigunak, kultura- eta erlijio-aniztasuna, gaitasun-aniztasuna, sexu-joeren aniztasuna, genero-aniztasuna eta baliabide sozio-ekonomikoen aniztasuna dira; desberdintasun- edo bazterketa-egoeren arrazoi nagusiak baitira. Kolektibo mehatxatuenak dira horiek eta, beraz, hezkuntza inklusiboak haiei eskaini beharko die arreta gehien. Baina ikastetxeetan ematen den aniztasuna askoz ere zabalagoa da; aipatutako egoeretatik at, haur eta familia bakoitza bakarria dela baldin badakigu, non gelditzen dira aurreko itoetan sartzen ez diren haur eta familiak? Ez al ditugu arrisku egoera gehiago aurkitzen? Eta inklusioak haur guztiak artatu behar dituela baldin badakigu, zer gertatzen da gainontzeko haurrekin?

“Ikusezinak” diren beste egoera gogor ugari ere badaude gainera, eta hauek ere, kontuan hartu behar ditugu, haurrek eta haien familiek bizitzen dituzten errealitatea ezagutzea askotan zaila baita, eta haurrak izan ditzaken zailtasunak ezagutzen ez baditugu esku hartze eraginkorra jorratzea ez da erraza izango.

2. GURE NARRATIBA DIGITALA

Hori horrela izanik, gure gertuko gai bat jorratzea erabaki dugu, gizartearen gehiengoarentzat ikusezina dena, baina aniztasunaren paradigma horretan gizarte bazterkeria ez ezik, etorkizun batean egoera latzak eragin ditzaketenak: genero indarkeriaren biktimak diren haurrak, hain zuzen ere.

Izan ere, aipatutako aniztasun-mota horiek guztiak ardatz nagusi baten inguruan uztartu behar dira: justiziarenean, alegia. Herritarren artean islatzen den aniztasun horrekin tentuz jokatu behar da, eta hori da, hain zuzen ere, hezkuntza-sistemen erronka handienetako bat.

Halaber, genero indarkeriaren arazoa gaur egun bogan dagoen gaia da. Hedabideei esker gero eta kasu gehiago ezagutzen ditugu, baina ez hori bakarrik, teknologia berriei esker ere horrelako gertaera gehiago daudela aitortu behar da. Begi-bistakoa da sare sozialen erabilpena inoiz baino handiagoa dela gaur egun, eta baliabide guzti hauek gure eskuetatik alde egiten duten indarkeria sexistaren eremu berriak zabaldu dituzte, bortizkeria gauzatzen den espazio eta modu berriak sortuz (Bertomeu, 2012).

Guztion ahotan dagoen gaia bada ere, seguru aski, baliteke guztion inguruan kasuren bat isilpean egotea. Bortizkeria jasaten duten emakumez etengabe hitz egiten da. Baina egoera latz honi ematen zaion ikusgarritasunean non gelditzen dira haurrak? Ikusezinak al dira? Ez al dira emakumearekin batera indarkeriaren biktimak zuzenak?

Honen ildotik, aniztasunaren edozein ikuspegi landu genezakeela esan zitzaigunean bertan ikusi genuen egoera hau bizi duten haurrei ikusgarritasuna emateko aukera. Orain gainera, COVID-19aren krisialdia dela eta, sare sozialetan eta telebistan behin eta berriro ari dira tratatu txarrak jasaten dituzten emakumeen zailtasunak islatzen, baina berriro ere, badirudi egoera hori bizi duten haurrak ahanzturan gelditzen direla.

Narratiba digitala egitea planteatu ziguten unetik, argi izan genuen gai hau azaltzeko marrazki edota beste edozein eskulan baztertuko genituela. Erreala izatea nahi genuen, hots, gertatzen dena, gertatzen den bezala adierazi nahi genuen, ikuslea bideoako pertsonaien azalean jartzeko eta bertan azaltzen diren egoeren parte sentiarazteko. Horregatik, pertsona eta ahots desberdinekin jolastea erabaki genuen. Horrez gain, haurrek bizi duten egoera adierazteko, alegoria bat planteatu nahi izan genuen, honek gainera norberak bere interpretazio pertsonala emateko aukera eskaintzen duelako.

Loratzen? hiru agerralditan banatzen da. Lehenik eta behin, gizon bat agertzen da etxeko atea irekitzen. Etxe baketsua dirudi, bera iritsi baino lehen ez baita inongo zarata ozenik entzuten. Baina gizona sartu orduko, haren garrasiak dira nagusi.

Ondorengo eszenan, bikote bat azaltzen da; gizona eta emakumea. Etxean egun desberdinetan gertatzen dena islatu nahi izan genuen, gizonaren errieta eta borrokak errutinaren parte direla adieraziz.

Bideoaren azken agerraldia alegoria bat da. Horretarako, emakumearen esku batek lorea ureztatzen duen agertokia erabili dugu. Loreak haurrari egiten dio erreferentzia eta hau ureztatzen duen eskua amarena da. Pixkanaka pixkanaka, lorea amaren zauriekin batera zimeltzen da, baita etxeko apainketa eta garbitasuna asalatu ere. Honekin adierazi nahi izan duguna zera da; amak jasaten duen tratua zauriak eragiten dizkiola, zauri fisiko eta emozionalak, eta etxean ematen den egoerak haurrari ere kalte egiten diola. Besteak beste, dituen zaurien ondorioz, lorea ureztatzeko indarrik ez duelako. Amak haurra maite badu ere askotan ez du bere beharrak asetzeko indarrik. Loreak hazten jarraitzen du, baina ez da loratzen eta jada badituen lore-hostoak galdu egiten ditu gainera. Genero indarkeriaren biktima diren hurrei gauza bera gertatzen zaien bezala.

Aipatutako guztia ikuspegi bertikalaren eta bideo txikien errepikapenen bidez egitea erabaki dugu. Izan ere, loreari protagonismo guztia emateko modu onena zela iruditu zaigu. Modu horretan, haurrek bizi duten egoera nolabait nabarmentzeko intentzioa izan dugu, begirada lorean finkatuz. Jakin badakigu guzti horrek deserosotasun puntu bat ekar dezakeela ikuslearengan baina jorratzen dugun gaia, hain zuzen ere, ez da zehazki eroso. Hori horrela, *Loratzen?* narratiba digitalarekin ikusleengan zearo kontrajarriak diren sentimenduak azaleratzea izan dugu helburu; loreak transmititzen duen goxotasuna eta bideoaren formatuak dakarren urduritasuna.

Bestalde, baldin badago ere, gai honi buruzko informazioa aurkitzea ez da erraza; ez da erraza biktimek hitz egitea, gehienetan lotsa edo beldurratik; eta administrazioak ere, biktimak babesteko noski, ez ditu datu asko zabaltzen. Gainera, konfinamendu egoera dela eta, ezin izan ditugu gauzatu programatuta genituen elkarrizketa batzuk. Horregatik, eta datu berririk ez, arestian gure taldekidea den Uhin Arrospidek, 2018an egin zuen ikerketa bat hartu dugu informazio iturri nagusitzat; non indarkeria matxistaren biktimez gain, Donostiako udaleko genero indarkeriaren laguntza programarekin eta genero indarkeriari erantzuna emateko arduradun diren Donostiako udaltzain eta ertzainekin elkarrizketatu zen, besteak beste. Horrez gain, Claustro Virtual de Coeducación taldearen bitartez, testigantza berriak lortu ditugu. Aurretik genero indarkeriaren biktima diren emakumeenak bakarrik baikenituen eta narratiba digital honetan beste ikuspuntu batzuk jaso nahi genituen.

Beraz, lan hau sortzeko erabili dugun materiala gure gertuko errealitatetik eskuratua izan da. Bertan agertzen diren testigantzak ez ditugu guk asmatu, egoera horiek bizi dituzten pertsonak kontatu dizkigute. Tamalez, bidali dizkiguten beste testigantza batzuk ez jartzea erabaki behar izan dugu, dokumentala gehiegi ez luzatzeko.

Aukeratu ditugun testigantzak ikuspuntu desberdinak ematen dituzte: alde batetik, bere ilobaren kargua hartu duen izeba, bere buruaz beste egin duen emakumearen ahizpa. Bestetik, haurra zenean bere amak tratatu txarrak jasaten zituen neskarena eta gero amaren patroia errepikatu zuenarena. Azkenik, gizonarengandik banatzea erabaki zuen emakumearena, non haurren egoerak ama bortizkeria eragiten zuen aitarengandik banatu zenean okerrera egin zuen. Baina horiez gain, pisu tutelatu batean bi haurrekin bizi den amarena, udaltzaingoarena, gizarte zerbitzuena, pedagoga batena eta abar ere jaso ditugu.

Beste testigantza oso berezi bat ere jaso genuen, beno, testigantza baino, bizi historio bat; gaur egun Haur Hezkuntzako hezitzailea den emakume gazte batena. Emakume honen amak tratu txarrak jasotzen zituen bere aitaren aldetik bera eta bere neba haiekin bizi zirenean, baina orainarte ere jasan ditu; bai fisikoak, baita psikologikoak ere.

Gutun hunkigarri bat idatzi zigun bere bizitzako historio guztia kontatzen, bere erraiak zabaldu zituen. Zer izan zen gainontzeko testigantzengandik desberdintzen zuena? Bere bizitzaren alderdi hau kontatzen zuen lehenengo aldia izan zela. Inoiz ez zion inori kontatu, inoiz ez zuen inolako terapiarik egin barrutik hautsita bazegoen ere. Eta ez dakigu zergatik, guri, ezezagun batzuei kontatzea erabaki zuen. Horren ondoren, kontaktua mantendu genuen berarekin, eta izugarri lagungarria izan zitzaiola adierazi zigun, horrezgeroztik terapia egitea erabaki zuela eta eskutitz hori idazteak sendatzen hastea eragin ziola. Baina ez hori bakarrik, gaur bertan idatzi digu (2020ko Apirilaren 17an) egoerari aurre egitea erabaki duela esanez; itxialdia dela eta amarekin hitz egitea erabaki zuela eta ama berarekin bizitzera joan dela kontatu digu. Eskerrak eman dizkigu barruan zuen korapiloa ateratzeko aukera emateagatik. Beraz, gaur bereziki hunkituta eta pozik gaude, kasu bakar bat izan bada ere, narratiba digital hau aurrera ateratzeko egin dugun lanaketak norbaiti benetan lagundu diolako. Emakume batek bere tratu txar emailearengandik alde egin du, eta alaba bere zauriak sendatzen hasi da. Emantzipatu egin dira, ahaldundu.

Narratiba digitalean kontatu ezin izan ditugun istorio pisutsuez gain, alarma egoera dela eta, hasieran genuen ideia ezin izan dugu gauzatu, eta etxean genituen baliabideekin moldatu behar izan dugu. Hasiera batean Tabakaleran filma burutzeko ideia genuen; kamera profesional batekin eta espezialista baten laguntzaz. Lehenengo eszena antzekoa bazen ere, bigarrenarako itzalekin egindako antzezlanaren burutu nahi genuen, eta lorearen alegorian eskua nola zauritzen zen segida berdinean ikusiko litzateke. Baina azkenean mugikorrarekin grabatu behar izan dugu eta laguntzarik gabe, itzalak alde batera utzita eta edizioa laguntzarik gabe eginez. Eskerrak eman behar dikiogu Mararen aitari, ahotsa jartzeaz gain aktore lana egiteagatik. Bideoa Marak grabatu du, ahotsak gainontzekoek eta edizioa Mara eta Maddiren artean egin dute, erabili behar genuen programa profesionala erabili beharrean interneten dohainik den aplikazio baten bidez.

Laburbilduz, genero indarkeriaren biktimak diren emakumeek ez ezik, bereien seme-alabek bizi duten egoera gogorrekiko kontzientzia sortu nahi izan dugu. Donostiako udaleko genero indarkeriaren laguntza programaren arduraduna den Arantxa Arrizabalagak adierazi digunez, tratu txarrak bizitzea eta bertatik ateratzea oso prozesu gogorra da eta emakume gehienek euren seme-alabekin batera egiten dute. Horregatik ikusentzunezko honetan, genero indarkeria bizi duten emakumeak ez ezik, haurrak ere biktimak direla adierazi nahi izan dugu.

3. ZERK ERAMAN GAITU EGOERA HONETARA?

Gezurra badirudi ere, ezin da ukatu gaur egun oraindik gizarte patriarkal batean bizi garela, zeinetan botere nagusia gizonezkoek duten. Hori horrela, sexuaren arabera rolak txikitatuz dira zehaztuak. Izan ere, del Valle (1999) azpimarratzen duen moduan, emakumeak ama moduan ikusiak dira eta familia barruko gune zentralizat hartuak dira, zaintzaile, transmititzaile eta sozializatzaile hutsak. Emakumeak lotu izan zaizkion ardura horiek gizartearen bigarren mailakotzat hartuak dira.

Aipatutakoa dela eta, Altunak (2016) defendatzen du subjektuaren identitate eraikuntza bi kategorien arabera zehazten dela: emakumea eta gizona. Eta, bakoitzari ezaugarri batzuk egozten zaizkiola harreman hierarkikoak ezarritik; gizonentzat arrazoiak, indarra, heziketa, progresua eta zientzia; emakumeentzat, aldiak, fedea, ahultasuna, tradizioa, iragana eta erlijioa.

Sistema patriarkala honen eredu argia da hizkuntzaren erabilera matxista. Eta honek ere, gizonei boterea eman eta emakumeak otzanak izatea eragin du historian. Rol femeninoa eta maskulinoa zehazten dituen hizkera bakoitzari portaera eta balio jakin batzuk emanez, sexu/genero bereko pertsona guztiak arau orokortzaileen bidez berdindu nahian (Alvarez, 2004). Azken hamarkadetan eman den euskararen biziberritze prozesuan, ordea, generoa ezberdintzea eskatzen ez duen zuka-ren erabilera zabaldu da. Begoña

Echeverriaren (2001) aburuz, hika maskulinitatearen bereizgarri den indarrari agertzen da lotuta. Baina gure ikuspuntutik, eukaraz eta zuka aritzea, ez da nahikoa, genero bereizketa egiten duen hizkuntza ekiditeko.

Hori gutxi balitz, Altunak (2016) azaltzen du hizkuntzen erabileraren bidez botere harremanak ezartzen direla. Hizkuntzaren erabilpen horrek, hain zuzen ere, gizonezkoek bilatu beharreko paradigma egiteko gaitasunari egiten dio erreferentzia; emakumezkoak, bien bitartean haien izaeran zentratzeari.

Gure gizartearen historiak beraz, egoera latz honetara bultzatu gaitu: Emakunderen (2019) txostenaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan 4.419 emakume izan ziren indarkeriaren biktima 2019an. Hauetatik 3.098 emakumek (% 70,1) beraien bikote edo bikote ohiengandik (gizonak) jaso zuten indarkeria.

4. HAURRAK ERE BIKTIMA DIRA

Osasunaren Mundu Erakundeak -OME- honela definitzen du indarkeria: «Norberaren, beste pertsonaren baten edo talde edo komunitate baten aurka indar fisikoa edo boterea berariaz erabiltzea, mehatxueta edo indarkeria gauzatuz, eta lesioak, heriotza, kalte psikologikoak, garapenaren nahasmenduak edo gabeziak eragiten edo eragiteko aukera handiak dituen» (Alvarez, Sanchez eta Bojórén, 2016, 4orr). Definizio horrek barne hartzen ditu ekintza fisikoak, bai eta larderia edo mehatxuak ere.

Nazio Batuek egindako lanak, bestalde, honela zehazten du haurren aurkako indarkeria: «Indarraren edo boterearen berariazko erabilera, egiazkoa edo mehatxu gisa, eta ondorioz lesioak, kalte psikologikoa, garapen akastuna, gabeziak edo heriotza bera eragin dezakeena».

Definizio horiei jarraiki eta Save the Children (2018) erakundearen arabera, genero indarkeriaren biktima diren emakumeen seme-alabak ere indarkeria horren biktima dira, eta indarkeria hori psikologikoa eta, batzuetan, fisikoa izan daiteke. Hain zuzen ere, biktimak bikoitzak direla esan dezakegu; alde batetik, emozionalki, beren zaintzaileen mende daudelako eta, bestetik, amaren aurka gauzatutako indarkeriak ondorioak dituelako haien garapenean.

Indarkeria kontzeptuan kontuan izan behar diren bi elementu garrantzitsu dira: alde batetik, boterearen gehiegizko erabilera eta, bestetik, indarkeria egoeraren ondorioz garapenean gertatzen den kaltea.

Baina etxean bizi duten egoera lasgarria da, ez da bukatzen indarkera jasaten duten emakumeak eta haurrak erasotzailearengandik banatzea lortzen dutenean; lortzen badute.

Gurutze Gorriaren arabera, emakume hauen %80ak beraien ingurunearengandik isolamendua behar izaten du. Tratu txarrak eragiten dizkion pertsonarengandik jasaten duen presioa dela eta, ezin baitu bere ohiko ingurunearekin eta familiarekin erlazionatu. 2016an estatu mailan Gurutze Gorriak egin zuen ikerketaren arabera, 11.000 emakume baina gehiago izan dira artatuak eta hauen %75ak seme-alabak ditu bere kargu (E.F.E., 2017).

Arreta jaso duten emakumeei buruz Emakundek egindako azterketan, tratu txarrak jasan dituzten emakumeen seme-alabei eskaintzen zaien arreta da ebaluazio-azterketetan behin eta berriro aipatzen den gabezia garrantzitsuenetakoa bat (Espinosa, 2018). Ebaluazio horietan biktima zuzen gisa jasotzen duten arretan dauden hutsune larriak azpimarratzen dira.

Emakundek (2009) egindako ebaluazioan harrera-baliabideak sakonago aztertu ziren, eta hurrei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko beharra jartzen da mahai gainean. Europako Batzordeak zehaztutako aplikatu beharreko gutxieneko arauak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan hautemandako errealitatea konparatzen ditu, besteak beste, eta horren arabera EAEko hurrek bizi duten egoera nahiko larria dela azpimarratu daiteke.

Gainera, egin ditugun elkarrizketetan oinarrituz, ondorioztatu dugu Gipuzkoan ez dela EAEn balioesten dena ere gauzatzen. Horregatik, garrantzitsua iruditzen zaigu gai hau mahai gainean jartzea. Eta horregatik erabaki dugu, hain zuzen ere, gure narratiba digitalarekin gai hau aurkeztea.

Oldartzailearekin bizi direnean jasaten dutena gutxi balitz, Pilar Carrerek, Donostiako ikerketa unitateko udaltzainak, eta Arantxa Arrizabalagak eta Neus Salak, genero indarkeriari erantzuna ematen dioten gizarte langileek adierazi digutenez gainera, behin indarkeria kasu bati irteera bilatzen zaionean, ez da haurrengan zentratutako esku hartze berezirik egiten.

Elkarrizketa hauetan azaldu digutenaren arabera, egoera gehienak ezkutuan daude, eta emakumeek salatzeke beldurra dute. Donostiako Udalak laguntza ekonomikoak eta ostatua eskaintzen dizkie behar duten emakumei indarkeria egoera atzean uzteko, baina hori ere ez da nahikoa izaten, eta gainera ez dago familia guztiak hartzeko lekurik. Horrez gain, egoera latz hauek atzean uztea erabakitzen dutenean ere, bizitza ez zaie batere erraza egiten. Besteak beste, askotan beraien ohiko ingurunetik, familiarengandik eta lagunengandik urrundu behar direlako, erasotzaileak aurkitu ez ditzaten.

Elkarrizketatu ditugun biktimek adierazi digute, bai beraiek baina baita beraien sema alabek ere laguntza psikologikoa jasotzen dutela dohainik, baina orokorrean bizi duten egoera askotan jasangaitza dela, eta emakume asko beraien erasotzaileengana itzultzen direla. Gainera, behin salaketak martxan daudenean, erasotzailearekin itzultzen badira, seme-alaben custodia administrazioaren esku gelditu daitekeela ere adierazi digute. Hori gutxi balitz, azaldu digute emakumeek duten estres maila, beldurra eta depresioa direla eta, askotan beraien burua ere ezin izaten dutela zaindu, hare gutxiago beraien kargu dauden seme-alabak. Horrez gain, familiakoei zein lagunei ezin izaten dietela esan non bizi diren; beraz, hauen laguntza jasotzea ere oso zaila egiten zaiela. Bestalde, askotan haurrak ohiko eskolatik atera behar dituzte gizonak aurkitu ez ditzan, eta eskola berri batean matrikulatu arte, horrek guztiak dakarren desorekarekin, haurrek beraien amekin egoteko aukera besterik ez dute. Tartean epaiketak, abokatuekin bilerak, gaixotasunak, lan bilaketa eta abar egon daitezkeela kontuan hartzen badugu, egoera are latzagoa bilakatzen da. Gure narratiba digitalean adierazi dugun bezala, emakumeen zauri sakonak direla eta haurrak ximeldu egiten dira, baina ez hori bakarrik, askotan beraien mundua hankaz gora jartzen da gainera.

Ukaezina da haur baten lehen eragile soziala familia dela, beren erreferentea baita eta bizitza eta mundua beraien eskutik ezagutzen baitute; beraien beharra dute. Baina zer gertatzen da beraien lehen erreferente horrek ez duenean behar bezala funtzionatzen?

Haurren garapenean faktore askok hartzen dute parte. Haur bakoitzak, igarotzen ari den etapa ebolutiboaren arabera, arlo ugartan gaitasunak eskuratzen ditu; etapa horiek zuzeneko lotura dute heltze prozesuarekin. Baina haurren testuinguruak ere harreman zuzena du beraien garapenean (Orjuela, Perdices, Plaza eta Tovar, 2007).

Haurtzaroaren garapenean eragin izugarria dute haurren eta beraien atxikimendu irudien artean ezartzen diren harreman ereduak. Haurren ongizatea eta haien eskubideak bermatzea, lehen mailan gurasoen ardura da, baina hauek bermatzen ez dutenean, komunitate osoaren eta erakundeen ardura bilakatzen da. Horren arabera, guztiok dugu haurren eskubideak bermatzeko nolabaiteko erantzukizuna. Horrek esan nahi du haurrek behar duten oinarritzko zaintza gurasoek bermatu ezin dutenean, erakundeei, ikastetxeei, hezitzaileei... dagokiela erantzunkizun hori.

5. HAURRAREN BEHARRAK

Silvanek eta Gomezek (2014) Save the Children erakundearentzat haurtzaroa, indarkeria eta generoroari buruz egin duen ikerketa lanak ondorioztatzen du haurren hurrengo beharrak bermatu behar direla:

Behar fisiologikoak eta fisikoak.

Haurra aurkitzen den eremu eta inguru fisikoak segurtasuna bermatu behar du. Indarkeriarik ez dagoen eta osotasuna mehatxatuko duten arriskurik gabeko eremuak izan behar dira. Era berean, bizirauteko beharrezko diren behar fisiologikoak asetu behar dira; osasun, higieine eta elikadura egokia bermatu eta garatzeko beharrezkoa duten jarduera fisikoa ahalbidetzea.

Lotura afektibo seguru eta jarraituak.

Garrantzitsua da komunitate bateko kide delako sentimendua garatzea. Horrek haurrak elkarrekikotasuneko gizarte dinamiketan parte har dezan bermatuko du. Arreta emateko prest eta baldintzarik gabeko onarpena eta tratua emateko gai izango diren helduekin lotura afektiboak bermatzeko beharra dute haurrek. Lotura afektiboak indartzeko arau argiak, koherenteak eta inolako indarkeriarik gabeak behar dira, errespetuan oinarrituak daudenak eta, era berean, autonomia sustatzen dutenak. Harreman fisikoaren bidezko maitasun eta afektu adierazpen agerikoak eta hurrei hitzeko komunikazioak segurtasuna eta sendotasuna emango diena.

Behar kognitiboak.

Helduek beharrezko estimulazioa, motibazioa eta informazioa eman behar diete hurrei bizileku duten mundua ezagutzeko jakin mina sustatzeko, bai eta beren errealitatea osatzen duten askotariko alderdien inguruko ezagutza eskuratzeko ere. Hori guztia, haurren erritmoak errespetatuz eta euren ulermen maila kontuan izanik egin behar dute. Garrantzitsua izango da adinarekin eta helduekin prozesuekin bat etorriko diren esperientzia berriak eskaintzea. Haurtzaroan jolasa, gaitasun kognitiboa sustatzen duen eremu garrantzitsua da eta, horretarako espazio eta objektu egokiak eskaini behar zaizkio haurrari, gizarteratzeko errekurtsoak garatzea ere ahalbidetuz.

Gizarte beharrak.

Komunitate bateko kide garen sentimenduak, gizakientzat garrantzia nabarmena du. Haurren beharrak asetu daitezten haurren komunikatzeko gaitasuna sustatu behar da jolasaren eta parekoekiko harremanaren bitartez. Komunikatzeko gaitasun hori bermatzeko ezinbestekoa da hurrei entzutea eta, horrela, beren emozioak, nahiak, bizipenak eta pentsamenduak adierazteko aukera izango duten eremuak sustatzea.

Oinarritzakoa da kontuan izatea haurren familia egoera arriskutsua baldin bada, eskola ingurua izango dela erreferente nagusia eta erakundeekin elkarlanean behar horiek asetu behar dituenak.

Gure lanarekin genero indarkeria egoeran bizi diren haur askoren beharrak asetzen ez direla adierazi nahi izan dugu. Eta ikusten duten pertsonak eta hezitzaileak honi buruz hausnartzera animatu nahi ditugu, azken finean guztion ardura izango baita ahal dugun neurrian behar horiek asetzeko esku hartze egokia gauzatzea.

6. GENERO INDARKERIAK HAURRENGAN DUEN ERAGINA

Haurtzaroan, garunaren garapena zuhurgarriagoa da esperientzia traumatikoen eraginaren aurrean eta baliteke garunaren antolaketa aldatzea. Horrek, geroago, estresa menderatzeko zailtasunak ekar ditzake. Estres kronikoak immunitate sistemen depresioa eragin dezake, bai eta garunaren kontrolpean dauden bestelako sistemen sakonunea ere. Beraz, ez da harritzekoa osasun maila baxuagoa duten haurrak izatea edo jokabidean suminkortasuna, loaren asaldurak eta beldurrak bezalako aldagetak erakusten dituztenak ikustea (Orjuela, Perdices, Plaza eta Tovar, 2007).

Horrez gain, Orjuelak, Perdicesek, Plazak eta Tovarek (2007) diotenez, indarkeriak eragina du haurrek munduaren eta beren buruaren inguruan duten ikuspegiari, bizitzaren zentzuari eta xedeari buruzko ideietan eta etorkizunean zoriontasuna lortzeko itxaropenen gainean. Etxean indarkeria izateak konfiantza edo segurtasun sentimendua garatzea eragotzi egiten baitu. Gainera, genero indarkeriaren biktima diren

emakumeengan sortzen diren depresioak eta autoestimu baxuak gainera segurtasuna eta asertibitatea oztopatzen dizkie seme-alaben hezkuntza zereginetan.

Ikerle hauen aburuz, etorkizunari begira, genero indarkeriaren biktima izan diren haurrek harreman positiboak eraikitzeke zailtasunak izan ohi dituzte, bere izaeraren sorreran izan dituzten zailtasunak medio. Era berean, gizartean integratzeko zailtasunak, jarrera agresiboak eta autoestimu arazoak izaten dituzte eta, sarritan, txikitatik bizitako patroia berak errepikatzen dituzte. Ikerketa ezberdinek baieztatzen dute genero indarkeria bizi izan duten haurren %48ak etorkizunean jarrera berdina errepikatzen dituztela, bai gizon agresibo moduan eta baita emakume otzan moduan ere.

Haurrekin esku hartzeko orduan, garrantzitsua da kontuan izatea, genero indarkeriak haurrengan dituen ondorioak, etxean bizi izandako indarkeriarekin ez ezik, bizitzako bat-bateko aldaketekin ere baduela zerikusia. Gure esku hartzeak ondorio negatiboak gutxitzera bideratua egon behar du, loreak ahalik eta osasuntsuenen loratu daitezen.

7. ONDORIOAK

Denbora luzez sakonki landu dugun gaia denez, egoera honetan bizi diren haurrak edo amarekin etxetik ihes egin dutenek garapen kognitibo, afektibo eta fisiko egokia izateko zailtasun larriak dituztela egiaztatu dugu. Baina, haratago joan gara eta errealitate latz honen oinarriak bilatzeko ahaleginak egin ditugu.

Gutiz hunkitu gaituen gaia izan da, egoera oso latzak ezagutu ditugu, eta hainbeste familiek bizi duten errealitate hori hezitzaile garen guztiok ezagutu beharko genukeela uste dugu. Izan ere, familia mota desberdinak aurkituko ditugu gure ibilbidean, eta garrantzitsua da, errespetuz, haurrak ez ezik, familiak ere ezagutzea beraien gaitasun eta beharretan oinarritutako hezkuntza pertsonalizatua eskaini nahi badiegu.

Gure ustez *Loratzen?* narratiba digitalak oso ondo adierazten duela testu honetan hitzez azaldu dugun guztia. Eta ikusten dutenek hausnarketa txiki bat egiteko tartea hartzea espero dugu. Bakoitzak bere ondorioak aterako ditu. Batzuk seguraski pentsatuko dute inoiz ezingo dugula jakin etxe batean hori gertatzen ari den, besteek hezitzaileok eta gizarteak besteen familietan sartzeko eskubiderik ez dugula, askok hori ez dela hezitzaileok orekatu behar dugun egoera eta beste askok saiatzen bagara ere, horren aurrean ez dugula zer eginik. Baina gutxienez haur hauek bizi duten egoeran pentsatzeari hiru minutu eskainiko diote ikusleek.

Guk ere egin dugu gure hausnarketa, eta gure iritziz hezitzaileak adi egotea ezinbestekoa da, eta susmorik badugu, ikertzea eta adituei jakinaraztea. Gainera, etxean genero indarkeria egoeran bizi diren edo bizi izan diren haurrei afektuzko tratua eta espazio segurua eskaintzeko ahalmena dugu eskolan, "loreak urreztatzea". Eta, eskola etorkizuneko helduak heziko dituen testuingurua denez (familia, gizarte eta abarrekin batera), ezinbestekoa da bertan berdintasunaren bidea jorratzea eta etorkizuneko genero indarkeria ekiditea.

Alabaina, irakasle bezala gure helburuetako bat nesken eta mutilen arteko harremanak asimetrikoak izateari uztea izango da baina, horretarako, eskoletan hezkidetzaren aldeko apustua egitea funtsezkoa izango da. Modu horretan, gaitasunak, trebetasunak eta bizitza-proiektuak generoarekin loturik ez egotea lortu behar dugu. Beraz, hezkuntzaren eremutik genero-indarkeria eta sexismoak eragindako indarkeria-mota guztiak deuseztatzen lagundu behar dugu. Zentzu horretan, haur bakoitzaren sostengu den familia bakoitzak igarotzen dituzten egoerak ezberdinak eta errepikaezinak direla ahaztu gabe, eta haur guztien garapen integrala ziurtatuz.

Modu horretan, eta Eusko Jaurlaritzak osatutako Gida Plana oinarri harturik, ezinbestekoa da egungo eskola mistoa hezkidetzan oinarritutako eskola bihurtzea. Eskola horren erreferentzia pertsonak izango baitira eta bide batez haien identitateen garapena.

Alde horretatik, bultzatu behar den hezkuntza afektibo-sexualak ikuspegi biologizistak gaintitu behar ditu eta zenbait alderdi landu. Baina, hezkidetzazko eskola-eredu baterantz aurrera egiteko eta genero indarkeria prebenitzeko, erantzun integral bat eman behar da, hezkuntza komunitate osoa bultzatu behar duena: irakasleak, ikasleak, familiak, hezkuntza-administrazioako langileak etab. (Martín eta Tellado, 2012)

Esandako guztiarekin, argi dago esku artean dugun gaia ez dela samurra, oso erroturik dugulako eta lanketa sakona zein zabala eskatzen duelako. Baina, ez dugu ahaztu behar hezitzaileok haurren bizitzak jokoan ditugula eta guzti hau aldatzea hein batean gure esku dagoela, hezkidetzazko ikasgeletara eramanez eta komunitatea zainduz. Izan ere, Tabakalerako esperientziaren bidez ikasi genuen begibistakoa ez dena ere gertatzen dela eta hor dagoela. Eta, horregatik, hain zuzen ere, lorearen eta loratzearen aldeko apustua egin dugu gure narratiba digitalean, genero indarkerian oro har haurrak ikusezinak direlako baina horrek ez duelako esan nahi biktimak ez direnik. Alabaina, errealitate latz honek haurtzaroan funtsezkoak diren behar batzuk asetuak izateko ezintasunera eramaten ditu haurrak eta, narratiban ikus dezakegun lorea bezala, zimeltzera irits daitezke. Zaintza irudiaren ongizatea bermatua ez izateak, haur hauen oraina baina baita etorkizuna ere trunkatzen ari baita.

8. TALDEAREN BALORAZIOA

COVID-19ak ekarri duen itxiera egoeraren ondorioz, gure lana moldatu behar izan dugu, baina orokorrean Guztiona taldeak oso ondo funtzionatu duela pentsatzen dugu. Bakoitzaren errekurso eta gaitasunetan oinarritu gara lan hau aurrera ateratzeko, eta hasieran genuen ideia egoera berezi honetara moldatu behar izan badugu ere, pozik gaude bai gure egile testuarekin baita *Loratzen?* narratiba digitalarekin ere.

Aitortu behar dugu gainera bai gure familien aldetik, baina baita testigantzak eskaini dizkiguten pertsonen aldetik ere, laguntza paregabea jaso dugula, eta horregatik eskerrak eman nahi dizkiegu. Bestalde, hunkiturik gaude, arestian aipatu bezala, kasu bakar bat bada ere, lanketa honek familia bati bizi zuen egoera latza aldatzen lagundu diolako. Eta gure lana ikusten dutenek kontzientzia hartuko dutelakoan, familia gehiagori edo haur gehiagori gutxienez lagunduko diela ere espero dugu.

Gure mezua argi ulertzen dela uste dugu: haurrak ere genero indarkeriaren biktima dira eta kontuan izan behar ditugu testuinguru seguru bat eskainiz. Gainera, etorkizunean egoera hauek errepikatzea saihestu behar dugu, berdintasunean oinarrituriko gizartea eraikiz.

9. IRAKURGAI INTERESGARRIAK

Asensi, L. F. (2007). Violencia de género: consecuencias en los hijos. *Revista Psicología Científica.com*, 9(4).

Euskal Autonomia Erkidegoan genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren biktima diren 50 emakumek eskolta dute:

<https://www.justizia.eus/albisteak/euskal-autonomia-erkidegoan-genero-indarkeriaren-edo-etxeko-indarkeriaren-biktima-diren-50-emakumek-eskolta-dute>

Exclusion - Gizadiberri: <https://www.gizadiberri.eus/es/opinion/o-exclusion?pag=2>.

García, M. Á., Alías, A. M. S., eta Ballester, P. B. (2016). Tratu txar matxisten biktimen arreata psikologikorako gidaliburua.

Haurren legea - Adingabeak genero-indarkeriaren biktimak izango dira: <https://www.eitb.eus/eu/albisteak/gizartea/osoa/3408638/haurren-legea--adingabeak-generoindarkeriar-en-biktimak-izango-dira/>

Las consecuencias de la violencia de género en los niños: <https://www.bekiapadres.com/articulos/consecuencias-violencia-genero-ninos/>

Orjuela López, L., Perdices, A.J., Plaza, M. eta Tovar Belmar, M. (2007). Familia giroan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen hurrei laguntzeko eskuliburua. Vitoria-Gasteiz. 2007.

Otamendi, M. (2015). Genero indarkeria jasandako haurrak biktima zuzen izendatuko ditu Madrilek. Berria. 2015eko Otsailak 21

Silván, E. (2012). Genero-indarkerian ez dago biktima bat soilik. Vitoria-Gasteiz. 2012

Vozmediano, A. (2016). 132 víctimas del maltrato han pasado este año por pisos de acogida en Gipuzkoa. EL DIARIO VASCO. Donostia-San Sebastián. 2016ko azaroaren 20a

10. ITURRIAK

Altuna, J. (2016). *Euskara generoaren ispiluan barrena*. (Ikasketa feministak eta generokoak masterra). Euskal Herriko Unibertsitatea.

Alvarez, A. (2004). “Euskara hizkuntza sexista al da?” in Erabili.com. Kontsulta on-line <http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/>

Beitia, I. (2016). Tokanoka tribua. Eskoriatzako gazteak eta hitanoa: uste, balore eta jarrerak Argitaratu gabeko Gradu Amaierako Lana.

Bertomeu, A. (2012). Redes sociales: Conversaciones multipantalla, riesgos y oportunidades. In *Tecnologías de la comunicación, jóvenes y promoción de la salud* (pp. 116-150). Consejería de Salud. Rioja Salud.

Del Valle, T. (1985.) *Mujer vasca: imagen y realidad*. Barcelona:Anthropos.

Del Valle, T. (1999). “El género en la construcción de la identidad nacionalista” in Foru Hispanico. Revista Hispánico de los Países Bajos, 16:37-44

Echeverria, B. (2001). “Privileging masculinity in the social construction of Basque identity” in Nations and Nationalism, 7(3):339-363.

E.F.E: *Dos de cada tres hijos de mujeres maltratadas atendidas por la Cruz Roja sufren violencia*. Noticias de Gipuzkoa. Donostia-San Sebastián. 2017ko irailaren 12a

EMAKUNDE: *Etxeko Tratu Txarrak jasan dituzten Emakumeen alorreko Harrera Baliabideen Eraginkortasun eta Irismen-mailaren ebaluazioa*. Vitoria-Gasteiz. 2009.

EMAKUNDE: *Indicencia del aviolencia contra las mujeres. Avance de datos (CAPV, 2019)*. Vitoria-Gasteiz. 2019.

EMAKUNDE: *Respuesta Institucional ante las necesidades de acogimiento de las mujeres víctimas del Maltrato Doméstico en la CAPV. Evaluación del Alcance y la Eficacia de los Recursos de Acogida en materia de Maltrato Doméstico contra las mujeres*. Vitoria-Gasteiz. 2009.

Espinoza, M. Á. (2004). Las hijas e hijos de mujeres maltratadas: consecuencias para su desarrollo e integración escolar. *Araba: Instituto de la Mujer Gobierno Vasco*.

EUSKO JAURLARITZA: *Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana*. Vitoria-Gasteiz, 2013.

- Fernandez, I. (1994) Oroimenaren hitza: ikastolen historia, 1960-1975. Bilbo: UEU
- García, M. Á., Alías, A. M. S., eta Ballester, P. B. (2016). Tratu txar matxisten biktimen arreta psikologikorako gidaliburua.
- Hernandez, J. (2005) Jolasgaraia. Gaztetxoak, hizkuntzak eta identitateen adierazpenak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia .
- Martín, N. eta Tellado, I. (2012). *Violencia de Género y Resolución Comunitaria de Conflictos en los Centros Educativos*. Multidisciplinary Journal of Gender Studies, 1(3), 300-319. doi: 10.4471/generos.2012.14
- Ordoñez, M., eta González, P. (2012). Las víctimas invisibles de la violencia de género. *Revista clínica de medicina de familia*, 5(1), 30-36.
- Orjuela López, L., Perdices, A.J. eta Plaza, M. (2007). Tovar Belmar, María. Familia giroan genero indarkeriaren biktima diren emakumeen haurrei laguntzeko eskuliburua. Vitoria-Gasteiz. 2007.
- Ortega, R. eta Lera, M.J. (2000). The Seville Anti-Bullying in School Project. *Aggressive Behavior* , 26, 113–23. doi: 10.1002/(SICI)1098-2337(2000) Piñuel, I. & Oñate, A. (2007) Acoso y Violencia.
- Ozaita, J. (2014). “Tolosaldeko gazteek (16-28 urte) hitanoari buruz duten pertzepzio, diskurtso eta praktika” in Bat soziolinguistika aldizkaria, 91:83-103.
- Perez de Unzueta Arrieta, B. (2012). Labirintoa. Vitoria-Gasteiz. 2012.
- Save the Children. (2014). Euskadin genero-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeei ematen zaien arretari buruzko diagnostikoa. Emakunde. Eusko Jaurlaritza.
- Save the Children. (2018). Save the Children presenta su campaña #LosÚltimos100 contra la violencia que sufre la infancia en España. *Save The Children*. Hemendik eskuratua: <https://www.savethechildren.es/notasprensa/save-children-presenta-su-campana-losultimos100-contra-la-violencia-que-sufre-la>